

## ABORTUAREN LEGEA: ESPERPENTOA

Hau da abortuaren legea irakurtzean jaso dudan berria:

a) nire emazteari (adinez nagusi denez), eskubide eta ekimen osoa ematen zaiola niri tutik esan gabe abortatzeko.

b) Espainiako senatari eta diputatuek beren emazteei eskubide eta ahalmen osoa ematen dietela senar jaunei tutik esan gabe abortatzeko.

c) Juan Carlos Errege Jaunak bere semearen emazteari, Letizia Printzeari, abortatzeko eskubide eta ahalmen osoa aitortzen eta ematen dion legea izenpetu duela, Printzepe Felipe senarra ezertarako aintzakotzat hartu gabe.

Oharra: hemen '*senar*' eta '*emazte*' hitzak esanahi zabalean hartzen dira.

Nire hausnarketa hau ez da abortua ekintza denez arazoari buruzkoa. Lege honi buruzko nire senar iritzia eskaintzera nator.

### **Epaia**

Hiru aldetik da lege hau onar eta jasan ezina, esperpento hutsa:

a) Etikatik. Elkarrekin bion artean eginaren buruzko ondorioak norberak bakar bakarrik erabakitzea lagunkidea ezertan

aintzakotzat hartu gabe, egoismorik beltzena aldarrikatzea da. Hurren bizi/ari diren lagunkideen arteko erlazioa bera ukatzea. Hori etikaren fundamentua gaitzestea da,

b) Zuzenbidetik. Zuzenbidea elkarrekiko harreman zuzenei buruzko adierazpen gorena denez, senar-emaztearen harremana eten eta ezezteza zuzenbidearen fundamentua bera lurperatzea da. Legen honen baiespena *'nik nirea eta kitto'* legeztatzea da.

c) Soziltasunetik. Gizakien arteko oinarrizko zelula eta fundamentua, bazter eta garai guztietan bizirik iraun duena, hau da: aita, ama eta semearen arteko giza-arte. Aita, ama eta semearen arteko sozietatea. Hori ukatzea sozialismo zuzen guztien fundamentua ukatzea da.

### **Legearen genesiaren zergati objektiboak**

Legearen fundamentu objektiboa gezurrezko trilogia da: abortua andrazkoaren arazoa dela esatea da.

a) *'Aita' ez*. Lege honek ukatu egiten du andrazkoaren sa-belean dagoen izaki/sorkari/haurrak aita daukala ere. Zerbait andrazkoarena bakarrik dela onartarazi nahi du (... libre disposición de *su cuerpo*): tumoretzua, mamorroren baten ziztadak eragindako handitza... Aitarik ez!!

Baina hori gezur hutsa da. Gizakiaren bere izatearen lehen zelulan, zigotoan datza aitaren eragin/eman bakarra. Lehenbiziko zelula bertatik, zigototik, sorkari berria aitaren seme da amaren seme beste, eta hori ez da inoiz inola aldatuko. Amaren eragina handia izango da, baina beti aitaren seme amaren seme beste den izakiagan. Ez dago, inola, amaren antojuan eta ahalmenean bere sabelean dagoen izakia noiz hasiko den aitaren seme izaten aukeratzea. Hori lege honek suposatzen duen aberrazioa da. Egia hau da: aita bai, hasieraren hasieratik. Legeak egia hau ukatu eta ezkutatu egiten du.

b) *'Ama'* ez. Andrazkoagan dagoen zerbait hori andrazkoaren gorputzaren zerbait dela eta ez besterik onartzean, amarik ez dagoela baiesten du. Eta hori gezur hutsa da. Amak ez du beste ezer berririk egingo bere sabelean dagoenak aitak eta amak egina izan dadin. Haurdun dagoen andrazkoan ama dago.

Ama izango da haurra sabelean haziko duena, bai. Ama izango da titia emango diona haur jaioari, aitak inola emango ez diona, bai. Baina hasieratik hil arte, giza zigotoa (izaki-berria) amaren obulua eta aitaren esperma bat eginez sortu den momentu bertatik, aitaren ekintza- seme eta amaren ekintza- seme izango da berdin berdin. Amak egingo dituen guztiak egin eta gero, ez du izaki berrian bere andra/ama eragin/partadeitza gehituko, aitaren eragin/partaidetzarekin konparatuz.

'Ama' hitza eta 'aita' hitza batera doaz, inola bereizi/banandu ezinak dira. Horregatik, 'aita' hitza ezabatzeko, 'ama' hitza ukatu eta ezkutatu egiten du lege honek. Gezurretan. Gizonezko naizenez, inola onartu ezin dudana. Nire indar eta ahalmen guztiez gaitzesten dudana.

b) *'Semea'* ez. Euskaraz oso ondo jasota daukagun bezala, behin zigotoa garatuz gero bere gorputzean, andrazko hori haurdun dago. Haurra dauka bere sabelean. Izaki berri edo giza sorkari edo beste edozein erara izendatuta ere berdin da. Gizaki garatzeko aitak eta amak emaniko programa eta ekimena beragan betiko duen izaki/haur autonomo da.

Behin eta berriz errepikatu behar da egia hau: hasieran bertan amagan dagoen gauzatxo hori (giza zigotoa) kosmosean ezagutzen dugun fenomeno/izaki askoz harrigarriena dela. Begia harrigarria da. Burumuina eta bere jardun miragarria harrigarriak dira. Baina begiaren eta burumuinaren eta gizaki osoaren programa eta ekimen olistikoa beragan daukan zelula mikroskopiko bakar hori, zigotoa, oraindik askoz eta askoz harrigarriagoa da. Eta bere sabelean dagoen mirari hori ukatzen duenak, gezur itzela dihardu esaten/egiten.

## Legearen genesiaren zergati subjektiboak

### *a) Andrazkoak*

Zaila egiten zait arazo honetan dihardugula andrazkoei buruz hitz egitea. Nire ama, nire amaginarreba, nire arrebak, nire emazte bedeinkatua, gizaki on bete betean maitagarriak izan dira eta dira. Andrazkoak eta gizonekoak berdinak gara. Baina nire ikuspuntutik andrazkoak gizonezkoekin konparatuz, zerbait esatekotan, andrazkoak gizaki beteagok direla esan behar. Andrazkoek argiago ikusten dute egiazko bidea, eta zuzenago hautatzen maitasunezko jarduna.

Hala ere zerbait esan beharra dagoela uste dut. Andrazkoen artean gizezkoak eraginda (alderdi batetik behintzat horrela dela aitortu behar dugu gizezkoak), feminista talde txiki baina bihurriak sortu dira, andrazko izatea pozik onartzen ez dutenak eta, batez ere, genero eskubideak aipatuz okerreko bi-deak aukeratzen eta gizartean ezartzen ari direnak. Gizezkoen matxismoa bereganatuz feminismo matxista gaitzesgarria eratzen ari direnak. Feminitxismoa ereiten ari direnak. Hauen lanak lortu du lege hau eraiki eta onetsia izatea.

Baina itxaropen osoa daukat andrazkoek eurok (gehiengo handi argiak) norabideratuko dituztela beren ahalegin guztiak gizaki guztion eginkizun benetan gizatiarretara. Maitakizunetara.

### *b) Gizezkoak*

Lege hau ere, gehienbat, gizezkoen saldukeriak onartua da. Alderdi politikoetan andrazkoen botoak galduz gero agintea galtzeko arduratan, gizezkoek ez dira ausartzen andrazkoei ezer ukatzen, ezertan gaizki ari direla esan eta aurka jartzten. Hori beren alderdiaren porrota izango litzatekeela kalkulatu dute. Andrazkoei bai eta bai esan eta kitto. Hori da lege honetan ageri den gu gizezkoen makaltasuna, makurkeria, ustelkeria.

## **Nire erantzuna**

Ez naiz konforme geratuko lege hau esperpento hutsa dela esanda. Ezkondua naizenez eta, batez ere, gizakia naizenez, kondenatu egiten dut lege hau gure gizartean ezarri nahi izatea. Kondenatu, bai etika, bai zuzenbidea eta bai soziologiaren izenean. Kondenatu, trilogia gezurtia legeztatzea delako.

Kondenatu, lurbira guztian inongo biltzar nagusienak ere aginpiderik ez duelako aginpide guztien fundamentua zapuzteko.

*Jenaro Garate*